

GIRO EDERREAN JOAN ZEN DEBAKO KANPORAKETA

Aurten 40 urte beteko dituen Debako Arrano elkartearen jokatu zen XIV. Euskal Herriko Mus Txapelketako Debako Kanporaketa.

Prestaketa

Eguerdiko 12.30ak aldera antolatzaileak elkartera hurbiltzen hasi ziren... 15 lagunentzako bazkaria prestatu behar baitzuten. Aitor Gonzalez sukaldari nagusi zela, menu ezin goxoagoa prestatu zuten. Sukaldean ari zen bitartean... antolatzaileak sariak ekartzen hasi ziren... txapelak, garaikurrak, arkumea, San Blasa, barazki otarra, ardoak... Mahai bete sari. 8 bikoterentzat batu zituzten sariak. Hauek guztiak, herriko denda eta tabernei esker batu zituzten.



Sarien mahai ederra, alajaina!

Bazkaria

Menua, ezin hobea: bakailao tortilla, saiheskiak patata frijitu eta piperrekin, eta banilla izozkia.

Giro ederrean joan zen bazkaria, adar jotze eta xaxatzeak tarteko... azkar iritsi zen lehen bikotea. 15.45erako, bazkaltzen egon ez zen lehen bikotea agertu zen. Auzolanean azkar txukundu zuten elkarte. Eta konturatzerako, 19bikote elkartu ziren.

Kanporaketa

17.00etan, kanporaketari hasiera eman zioten. Umore ederrean joan zen arratsalde-
iluntzea... partida luze eta laburrak tartekatu ziren. Ikustekoak ziren poztasuna eta
ezintasuna adierazten zuten aurpegiak. Entzutekoak bataren eta bestearen irabazi edo
galtzeko adierazitako adierazpenak. Batzuentzat, zorte kontua, besteentzat gaitasuna...
partida irabazi edo galdu, asko aldatzen baita...

Kanporaketa amaitzeko, azken partida, gogorra izan zen. Karlos Larrañaga eta Xabier
Arberasek jantzi zituzten txapelak, Jose Mari Larrañaga eta Justo Lazcanoren aurka.
Azken eskuan, 29na berdinduta zeuden, baita ustel kopuruan ere, bina. Lau muslariek
jaso jantzi zitzaketen txapelak, baina zortea lagun, Karlos eta Xabier txapeldun.



Final estu bezain gogoangarria. Begiak erne, burua hotz!

19 bikote batu zirenez, lehenengo 3 bikoteek jokatuko dute Gipuzkoako finala martxoaren
11n Debako Aldats pilotalekuan.



Txapeldunak: Karlos Larrañaga
eta Xabier Arberas

Txapeldunordeak: Jose Mari
Larrañaga eta Justo Lazcano.

Hirugarrenak, eta baita ere sailkatuak Gipuzkoako kanporaketako: Juan Karlos Etxabe eta Iñaki Arrizabalaga



Aurreko hiru bikoteez gain, hauek izan ziren sariak jaso zituztenak, sailkapen hurrenkeraren arabera:

Josu Indamendi eta Iñaki Aspiazu.
Iñaki Olaizola eta Mikel Irusta
Enaut Arakistain eta Ibai Idiakez
Anzarda eta Txutxi
Urtzi Jauregi eta Iker Zubikarai.

Amaiera

Berriro ere auzolanean, elkartzeko mahaiak txukun-txukun utzita... 20.30erako amaitu zuten kanporaketa.

Antolatzaileen hurrengo erronka, martxoaren 11koa izango da.

Eskertzak

Kanporaketa hau antolatu hau izateko eta Gipuzkoako Finala Deban antolatzeko, ezinbestekoak dira laguntzaileak. Eskerrik asko laguntzaile guztiei.

DEBAKO UDALA

TABERNA/JATETXEAK

ARENA BAR	ALVAREZ ATERPE	BURU ZURI	CALBETON
IGARZA	IZENBE	KOSKA	LABATAI
LOREA	MAZZANTINI	OSKARBI	SEVEN CLOVERS
ZALBURDI			

ELKARTEAK

ARRANO	BATZOKIA	LUBINA
--------	----------	--------

DENDAK

ALBIZU	AITTOLA	ARAKISTAIN	ARKATZA
ELGAR LIZASO	EROSKI	EUSKALINPRI	GALTXA
FRUTAS Y VERDURAS DE PUEBLO		IERAENEA	LAMARIANO
LIZASO	MUGAN	SASOIKO	SUKIA
ZIPRI			